

NIRE AURRERAPENA 9

1. 727 cm 0,0727 ...

- A km dira.
- B hm dira.
- C dam dira.
- D m dira.

2. 2.346,071 l ...

- A 23 kilolitro, 4 hektolitro, 6 dekalitro eta 71 litro dira.
- B 2 hektolitro dira.
- C 2 hektolitro, 3 dekalitro, 4 litro, 6 dezilitro eta 71 zentilitro dira.
- D 2 kilolitro, 3 hektolitro, 4 dekalitro, 6 litro, 7 zentilitro eta 1 mililitro dira.

3. Zer ur kantitate sartzen da, guztira, 2,5 dekalitroko 8 ontzitan?

- A 20 litro.
- B 2 hektolitro.
- C 200 dekalitro.
- D 2.000 zentilitro.

4. Pisu hauetatik zein ez dago 400 kg-ko eta 1.000 kg-ko pisuen artean?

- A 500 kg
- B 6.000 hg
- C 850.000 g
- D 1.500.000 g


5. 6 metroko goma bat 2,5 dezimetroko zatitan banatu dugu, eskumuturrekoak egiteko. Zenbat eskumuturreko lortuko ditugu?

- A 2 eskumuturreko.
- B 10 eskumuturreko.
- C 15 eskumuturreko.
- D 20 eskumuturreko.

6. Helenek 1,25 l ur hartzen duen kantineplora bat du. Ibilaldi bat egitean, Helenek eta lagun batek hiru litro laurden edan zituzten, eta, iturri batean, 6,5 dl urez bete zuten kantineplora berriz. Zenbat ur geratzen zen kantineploran ibilaldiaren ondoren?

- A Dezilitro 1.
- B 15 zentilitro.
- C 11,5 dezilitro.
- D 4 zentilitro.

7. Zer azalera du irudi honek?



- A 31 lauki.
- B 33 lauki.
- C 37 lauki.
- D 39 lauki.

8. 62,401 m²...

- A 62 m², 4 dm² eta 1 cm² dira.
- B 624.100 cm² dira.
- C 624,01 dm² dira.
- D 62.401.000 mm² dira.

9. 10.000z zatitu behar da ...

- A m²-tik dam²-ra aldatzeko.
- B dam²-tik km²-ra aldatzeko.
- C hm²-tik m²-ra aldatzeko.
- D km²-tik hm²-ra aldatzeko.

10. Iaz 82 hm^2 basoberritu zituzten, pinuak eta arteak landatuz. Aurten, berriz, $74,4 \text{ hm}^2$ basoberritu dituzte, basolibondoak eta algarroboak landatuz. Zenbat kilometro koadro basoberritu dira azken bi urteetan?

A $0,826 \text{ km}^2$

B $1,564 \text{ km}^2$

C $8,26 \text{ km}^2$

D $15,64 \text{ km}^2$